

Materia ilunaren zantzutzat jo izan den seinalea baztertu dute

Partikulen fisikaren hainbat eredu proposatu izan dute materia iluna pixkanaka deskonposatu eta materia arrunt bihur litekeela, eta, prozesu horretan, fotoiak askatu litezkeela. Hala, proposatu izan da zenbait galaxiatan ikusitako 3,5 kiloelektronvolteko X izpien isuri-mota bat izan zitekeela horren froga. [Science aldizkarian argitaratutako ikerketa batek](#), ordea, ezeztatu egin du hori hala denik. Haren arabera, ez da materia ilunaren deskonposizioaren ondorio hainbat galaxiatan eta galaxiakumulutan hauteman den X izpien seinalea.



Materia ilunaren deskonposizioa egotekotan, Esne Bidearen erdigunearen inguruan X izpien isuria ikusi beharko omen litzateke. ARG.: Fermi Large Area Telescope.

Horretarako, ikertzaileek Esne Bidean antzeko zerbait gertatzen ote den argitu nahi izan dute. XMM-Newton teleskopioaren bidez, urtebeteko behaketa egin dute, galaxiaren haloari begira. Beste motatako X izpien isuritik libre dauden eremuei erreparatu diete, baina ez dute isuri-mota horren aztarnarik aurkitu.

Grabazioari lotutako behaketek ondorioztatzen dutenez, unibertsoaren % 80 materia iluna da, baina, momentuz, materia iluna aurkitzeko ahaleginetan jarraitzen dute astrofisikariek. ●

Hizketarako bide neuronalen sorrera



ARG.: Pixabay.

Gizakiek hitz egiteko gaitasuna gara zezaten, ezinbestekoa izan zen primateen garunean hainbat aldaketa gertatzea. Hain zuzen ere, entzumenaren eremua eta loburu frontala interkomunikatzen dituzten bide neuronalak sortzea. Orain arte, uste zen duela 5 milioi urte sortu zela konexio hori, tximinoen eta gizakien arbaso komun batean, baina *Nature Neuroscience* aldizkarian argitaratutako ikerketa batek oso bestelako datuak eman ditu: duela 25 milioi urte sortua zen jada.

Ikertzaileentzat zaila da hizketarako gaitasuna nola sortu zen aztertzea, hezurak ez bezala, garunak ez baitira fosilizatzen. Erreminta bakarra izan dute eskura: bizirik dauden primate espezieen garunak aztertu eta gizakienekin alderatzea. Kasu honetan, komunitate zientifikoak denen eskura jarritako eskaner-irudiak izan dituzte baliabide nagusia.

Newcastleko Unibertsitateko neurozientzialariek egin dute ikerketa, eta aipatu dute balio izan duela bide neuronal horrek gizakiongan gerora zer bide egin zuen argitzeko ere. Alegia, garuneko entzumen-eremuak ez diren beste eremuak ere tartean nola inplikatur joan diren ikusteko. ●